

**PLAZARA!
PROZESU
PARTIZIPATIBOAREN
2. FASEAREN
TXOSTENA**

1. TESTUINGURUA	3
2. HELBURUAK	5
3. PARTE HARTZEKO BIDEAK ETA MEKANISMOAK	5
3.1. Talde Eragilearen bilerak	
3.2. Gune komunitarioen kudeaketari buruzko jardunaldiak	
3.3. Eztabaida eta sorkuntza kolektiboko lantegiak	
3.4. Bilera ireki eta partizipatiboak	
4. EMAITZAK: KUDEAKETA EREDUA	12

1. TESTUINGURUA

Plazara! prozesu partizipatiboaren lehenengo fasea 2016ko abenduaren 12an jarri zen martxan, eta pasa den maiatzaren 11n amaitu zen arte herritarren 2.014 ekarpen jaso ziren guztira Redin eta Cruzatarren jauregia gizarte- eta kultur-zentro komunitario gisa izanen dituen erabilerak zehazteko. Epe hori amaitua, prozesuaren bigarren fasea hasi zen.

Lehenengo fase honetan zenbait bide jarri ziren martxan herritarrek aukera izan zezaten etorkizuneko eremu horretarako ideiak eta nahiak adierazteko. Alde Zaharreko auzokideei triptikoak banatu zitzaizkien postontzian, auzoko zenbait lekutan postontziak paratu ziren, webgune bat sortu zen parte hartu ahal izateko eta prozesuaren garapenari buruzko informazioa eman ahal izateko, lantegi partizipatiboak antolatu ziren gizarte eta kulturaren alorretako talde interesdunekin, eta gai honetan garrantzia duten pertsona eta kolektiboek elkarrizketa egin zitzaizkien. Horretaz gain, prozesuaren ikusgarritasuna handitu eta herritarrei modu aktiboan parte hartzeko aukera emateko, kaleko zenbait dinamika ere antolatu ziren.

Dinamika partizipatibo horietako lehena Redin eta Cruzat Ibiltaria izan zen. Talde Eragileko zenbait kide, pilotari eta artekariek jantzita, Alde Zaharreko kaleetan barna ibili ziren tenis pilota horiz betetako gurdi batekin; pilota horien barrenean jaso ziren oinezkoek barruan sartzen zituzten proposamenak. Abenduko arrats hotz batean egin eta kalean jende gutxi zebilen arren, arrakasta handia lortu zen; inguruan zebilen jendea parte hartzera hurbiltzen zen, eta etorkizuneko espazio horri buruz galdetzen zuten. Iruñeko erdiguneko kaleak horiz tindatzea lortu genuen, 200 proposamen baino gehiago jasota.

Gainera, proposamenak jasotzeko hilabetean zenbait bisita antolatu ziren Redin eta Cruzatarren jauregira, noren eta XVII. mendean jauregiaren jabe zen Tiburcio de Redinen eskutik. Horrela, herritar guztiek izan zuten aukera jauregira etorri, haren ezaugarriak ikusi eta kolore askotako post-ite-tan proiektuaren balioei, espazioaren erabilerari zein eraikinaren arkitekturari buruzko proposamenak egitea. 10 bisita gidatu izan ziren, eta horietan 600 ekarpen jaso genituen.

Eta, nola ez, txikiek ere zeresanik badute. Haiei entzuteko, dinamika bat antolatu genuen, eta horretan haien ideiak marraztu eta plastilina eta gometsekin eraiki zituzten, panpina-etxe baten moduko maketa batean.

Proposamenak jasotzeko faseari amaiera emateko, azkeneko dinamikak musikaz, kolorez eta esekitokiez bete zituen Alde Zaharreko kaleak; oinezkoek arropen forma zituzten koloretako paperen gainean beren nahiak idatzi eta esekitokietan zintzilikatu zituzten. Oso modu ikusgarria izan zen oinezkoak erakartzeko. Azkeneko egun horretan guztira 146 proposamen jaso ziren.


Jasotako proposamen kopuruak soberan gaintu zituen prozesu honetan lan egin duen Talde Eragilearen itxaropena. Mila esker kaleko dinamiketan, bisita gidatuetan eta lantegi partizipatiboetan parte hartu duten guztiei. Mila esker, baita ere, triptikoen eta webgunearen bidez parte hartu dutenei.

Parte hartzeko bide eta mekanismoetatik proposamen guztiak jaso eta gero, Talde Eragileak eta ha-
ren batzordeek lan egin zuten proposamen horiek Redín eta Cruzatarren jauregia zaharberitzeko
beharren plan batean agertzeko.

Prozesu hori modu logiko eta naturalean egin da, eta helburu nagusia izan zen prozesuan aurre-
ra egin zuten proposamen guztiek tokia izan zezatela etorkizuneko zentro komunitario horretan.
Horrek ez du esan nahi proposamen horiek garatuko direnik zentroa martxan jarri baino lehen,
izan ere, prozesuan inplikaturako herritarrek beraiek jarriko dituzte praktikan eta martxan. Hala,
prozesuko fase honen emaitza izanen da espazioa egokitzea proposamenak garatzeko behar diren
kontu tekniko eta arkitektoniko guztien arabera.

Jasotako proposamenak kategorizatu eta antolatzeko lan handitik lorturiko emaitzetatik, Talde Era-
gileko arkitektura batzordeak, Udaleko arkitektoekin elkarlanean, Redín eta Cruzatarren jauregia-
ren erreformarako aurreproiektua egin zuen, helburu hartuta bertan biltzea herritarrek adierazi-
tako nahiak eta haien ustez gune komunitario batek bete beharko lituzkeen beharrak.

Fase hori guztia modu zehatz eta irekian azaldu zen herritarren aurrean maiatzaren 11n egindako
jardunaldian, eta bertan, hainbat euskarriren bidez, emaitzak plano baten moduan aurkeztu zituz-
ten, eta alde zuzeneko garapen-prozesua azaldu. Lehenengo fasea ixten zuen jardunaldi horretan
bertan, *Plazara!* Prozesu partizipatiboaren bigarren fasea aurkeztu eta abiatu zen; fase hori aben-
duaren 12an amaituko da.



2. HELBURUAK

Prozesuaren bigarren fase honen helburu nagusia izan da modu kolektibo eta partizipatiboan definitu eta erabakitzea zein izanen den Redín eta Cruzatarren jauregiko etorkizuneko gune sozio-kulturala gobernatzeko kudeaketa-eredua, behin jauregia zaharberritu eta prozesu partizipatiboaren lehenengo fasearen emaitzen arabera egokituta.

Horretarako, egoki jo da gune komunitarioak kudeatzeko prestakuntzatik abiatzea, gero haren alderdiei buruzko hausnarketa egin, eta prestatzea, hau da, kudeaketa-eredu propioa zein izanen den zehazteko eta erabakitzeko gai izatea.

Beraz, helburu orokorra etorkizuneko gunerako kudeaketa eredu propioa prestatzea bada ere, badira beste helburu zehatzago batzuk: prestakuntza, gogoeta, eztabaida eta trebakuntza egitea, helburu nagusi horretarako bidea irekitzeko.

3. PARTE HARTZEKO BIDEAK ETA MEKANISMOAK

Prozesu partizipatiboaren bigarren fase hau beste hiru fasetan banatu zen,aldi berean eta batak bestea osatuz aurretik aipatutako hiru helburu zehatzak bilatzeko: prestakuntza, eztabaida eta erabakitzea.



Zentzu horretan, lehenengo parterako —gune komunitarioak kudeatzeari buruzko prestakuntzarako—, zenbait jarduera antolatzea erabaki zen; horietako batzuk hirian eraikitze-bidean diren beste zentroekin elkarlanean (esate baterako Txantreako Salestarrak eta Mendillorriko Antzara zentroa).

Bigarren partea gogoeta eta eztabaidarako unea izan zen, eta horretarako sormen kolektiboko lantegiak egin ziren; lantegi horietan aukera izan zen eztabaidatzeko eta lan egiteko hala gune komunitarioen kudeaketari buruzko alderdien inguruan nola kudeaketa horren sostengu izan behar duten balioen inguruan.


Azkenik, lanaren hirugarren partearen ardatz nagusia izan zen erabakiak hartzea, batzar ireki eta partizipatiboen bidez, eta horietan elkarteetako kide diren zein ez diren herritarrek zehaztu zuten nolako kudeaketa-eredua nahi duten Plazara! proiekturako.

3.1. TALDE ERAGILEAREN BILERAK

Elkarteetako kide diren zein ez diren herritarrek eta udal teknikariek osaturiko Talde Eragilea asteen behin elkartu da, 2016an prozesua martxan jarri zenetik. Taldea parte hartu nahi izan duten guztiei irekia izan da, eta haren osaera aldatuz joan da, kide gehiago hartuz joan baita denborak aurrera egin ahala. Taldearen helburua izan da, eta oraindik bada, parte-hartzea dinamizatzea eta sustatzea eta, aldi berean, prozesuaren gardentasuna eta inpartzialtasuna bermatzea.

Bilerak irekiak izan dira, eta zenbait bitartekoren bitartez eman da haien berri (webaren eta prentsaaren bitartez), eta, oro har, ostegunetan izan dira, 19:30ean, Kondestablearen jauregian.

3.2. GUNE KOMUNITARIOEN KUDEAKETARI BURUZKO JARDUNALDIAK



**GUNE KOMUNITARIOEN
KUDEAKETAREN GAINEKO JARDUNALDIAK**

Prestakuntza eta trebakuntzako bigarren fase honetako lehenengo lana egiteko, Gune Komunitarioen Kudeaketari buruzko Jardunaldi batzuk antolatu ziren. Jardunaldiak bi bloke handitan banatu ziren; batetik zine-forumeko ziklo bat izan zen, eta, bestetik, prestakuntza jardunaldiak.

Zineforumeko saioak maiatzaren 30ean, asteartearekin (Txantreako liburutegian), 31n, asteazkenarekin (Calderería aretoan), eta ekainaren 1ean, ostegunarekin (Kondestablearen jauregian) izan ziren.

Hainbat film proiektatu ziren, ikuspuntu ezberdinekoak eta herritar-guneekin lotutako gaien ingurukoak. Ikusi ondoren, solasaldia egin zen bertaratuekin, Juan José Díaz *Campo Creativo Cero* lantaldeko kidearen gidaritzapean.

Prestakuntza jardunaldiak ekainaren 8, 9 eta 10ean izan ziren; lehenengo egunean, Txantreako liburutegian, eta gainerakoetan Kondestablearen jauregian. Fase honi hasiera emateko topaketa bat egin zen, eta bertan egon ziren hirian abian zeuden hiru prozesuetako ordezkariak (lehenago aipatutakoak) eta herritar andana bat.

Nork bere esperientziaren berri eman eta gero, lan-dinamika bat abiatu zen, eta horretan prozesu horiek guztiek martxan jartzeak sortzen dituzten ahalmenak eta baita beldurrak ere adierazi ziren.



Bigarren egunean xedea izan zen estatuko esperientzia komunitarioak ezagutzea, eta horietako zenbait ordezkari egon ziren: Bartzelonako Can Batlló-koak, Madrilgo Espacio Vecinal de Arganzuelakoak (EVA), Malagako La Casa Invisible-koak, Gernikako Astrakoak eta Bartzelonako Udalekoak. Kasu horretan, gaiak aurrez adierazitako bost lan-ardatzetan banatu ziren: Antolaketa eta Funtzionamendua, Finantzaketa, Programazioa, Lurraldearekiko harremanak eta Erakundeekiko harremanak.



Hitzaldien ondoren, beste dinamika bat egin zen, eta horretan erakundeekiko harremanak azpimarratu ziren. Dinamikan, entzuleez gain, hizlariak ere parte hartu zuten, eta beren ezagutzen eta esperientzien berri eman.

Azken egunean bestelako dinamikak egin ziren, gainerako ardatzak lantze aldera (antolaketa eta funtzionamendua, finantzaketa, programazioa eta lurraldearekiko harremanak).



ONDORIO OROKORRAK

Sei saio horien ondoren, honako ondorio hauek atera ziren: parte hartzen dutenek, laguntzen dutenek, itsumustuka hiria eraldatu nahi dutenek badakite: beharrezkoa da ikasten jarraitzea, eta erabat ezinbestekoa gizarteko sektore guztien babesa eta laguntza lortzea, hala gure ordezkari direnena nola kolokan jartzen gaituzten horiena.

Herritar-guneak ari dira bidea egiten aldaketa azaleratu eta finkatzeko, xede hartuta istorio autobiografiko txikien protagonista izateko erabakiari aurre egitea.

Hasteko unea da, ateak ireki eta gela guztiak haizatzekoa, eta, hain zuzen, jardunaldi hauek horretarako dira, laguntza ordainezina baitira ulertzen hasteko non ezkututzen den txandakatzeari bide ematen dion etengailua.

Esperientziak agerian utzi du ekimenak badaudela, ez oso urruneko beste leku batzuetan gune hutsak bidea utzi zietela azaleratzen jarraitzen duten pabiloi itzelei. Arian-arian, proiektu eta eskariei izena ematen zaie, eta elkarrizketak eta konexioak elkarbizitzaren parametro berriak ezartzen dituzte. Gizarte-ehuna iratzartzen ari da, eta ordua dugu gure ingurunearekin engaiatzeko hezkuntza jasotzeko.

Era guztietako zalantzak sortu dira, agerian geratu dira gabeziak asko, baina ez dugu ahaztu behar gure bizitzetako puskek baimena eskatu dutela jada... gidatzen gaituen izaera sozialari heltzeko.

Abian diren prozesuak aurrera doaz, eta egun hauetan egiaztatu ahal izan dugu erabakitzen ikasi ikasten dela, eta herritarren partaidetza sustatu behar dela, horrela bultzatzeko eskola solidario berri baten konpromisoa eta erronkak.

3.3. EZTABAIDA ETA SORKUNTZA KOLEKTIBOKO LANTEGIAK

Prestakuntza-jarduerak egin eta estatuko zenbait zentro komunitarioren esperientziak ezagutu eta gero, unea iritsi zen gogoeta eta eztabaida modu kolektibo, ireki eta partizipatiboan egiteko, zentro berrirako zer kudeaketa-eredu nahi dugun helarazteko.

Jardunaldietan gertatu, landu eta ezagututako guztia kontuan hartuta, hiru saio antolatu ziren ekainaren 15, 22 eta 29an, eta bakoitzak hiru ordu iraun zuen, gutxi gorabehera. Saioak Prometea lantaldeko kide Itziarrek eta Zorionek, eta aire zabalean egin ziren, Pellejerías zokoan, La Piparrika hiri baratzea dagoen lekuan; eguraldiak lagundu ez zuenean, Kondestablearen jauregira joan ziren. Lantegietan gutxi gorabehera 80 lagunengatik hartu zuten parte.



Lehenengoan, hasteko, parte-hartzaileen abiapuntua ezagutu genuen, gaiari buruz, eta kudeaketa-ereduari buruzko kontu adierazgarriak identifikatu genituen. Bigarrean, guztion artean definitu genuen kudeaketari buruz etorkizunean nolako zentroa nahi dugun, eta zer baliok sostengatu duten. Hirugarrena kudeaketari dagozkion alderdi zehatzen inguruko sakontze-lana egin zen. Bertan landu eta sakondu ziren alderdiak aldeztatik prestakuntza-jardunaldietan kudeaketarako ardatz moduan identifikaturiko horiek berak izan ziren:



ANTOLAKETA ETA
FUNZIONAMENDUA



FINANTZAKETA



PROGRAMAZIOA



HARREMANAK
LURRALDEAREKIKO



HARREMANAK
ERAKUNDEEKIKO

Ordura arte egindako lanarekin, hau da, gogoeta eta sormen kolektiboari buruzko lanarekin, kudeaketa-ereduaren zirriborro bat egin zen.

Hona hemen hiru lan-saioetako planteamendua eta edukiak:

1. HASTAPEN-LANTEGIA

Aurkezpenak egin eta gero, bertaratuek antolatutako lantegietatik zer espero zuten adierazi zuten, eta haraino iristeko aldeztatik aurretik egindako lana nabarmendu zuten.

Ondoren, parte-hartzaileak taldeka banatu ziren helburu hartuta kudeaketarako bereziki garrantzitsutzat jotzen zituzten alderdiak identifikatu eta horietan sakontzea. Gero, lan-talde guztietan jorratutakoaren bateratze-lana egin zen, eta horrekin koadro bat osatu zen, geroago egin beharreko lana erraztu, eta zehaztasunean sakontzen laguntzeko.

2. GARAPEN-LANTEGIA, ELKARREKIN ZEHAZTEKO:

Antolatutako bigarren lantegi horretan, hasteko, etorkizunerako zer-nolako zentro komunitarioa nahi genuen zehaztu zen, bai eta hura zer baliok sostengatu behar zuten.

Ondoren, aldeztatik planteaturiko balioetatik abiatuta, kudeaketari dagozkion alderdiekin hasi zen, kudeaketa-eredua zehazten hasteko balio horiekin bat.

3. GARAPEN-LANTEGIA, ELKARREKIN ZEHAZTEKO:

Hirugarren lantegian, koadroa osatu zen gune komunitarioaren kudeaketak barne hartu behar zituen alderdi guztiekin, eta zehaztasun-maila handiagoa lortu zen. Aurreko saioetan ikusi eta landutako guztia laburbildu zen, horrekin beste urrats bat egin eta kudeaketa-ereduaren zirriborroari forma emateko.

Ariketa horren ostean, eztabaida-saioen ebaluazioa egin zen, eta horrela itxi zen prozesu partizipatiboaren bigarren fasearen etapa hau.

3.4. BILERA IREKI ETA PARTIZIPATIBOAK

Urrian, bi bilera egin ziren, herritar guztiei irekiak, helburu hartuta azkeneko urratsa egitea etorkizuneko zentrorako nahi dugun kudeaketa-eredua osatzeko.

Prozesuko Talde Eragileak kudeaketa-ereduaren zirriborroaren gainean egin zuen lan, eta agiri bat prestatu zuen eta bertan bildu zuten Zentro Komunitarioaren kudeaketa ezarriko duten ildo nagusiak, aurreko hilabeteen egindako lanaren ondorioz zehazturikoak.

Urriaren 5ean, kudeaketa-ereduari buruzko lehenengo bilera egin zen, herritarrei helarazteko zer puntutan dagoen Plazara! prozesua. Redín eta Cruzatarren jauregian izan zen, eta 25 lagun bertaratu ziren. Bilera horretan puntuz puntu azaldu zen kudeaketa-ereduaren proposamena jasotzen

duen agiria, eta bertaratuen zalantzak ere argitu ziren. Halaber, prozesua zein egoeratan zegoen azaldu zen, eta zeintzuk izan ziren horraino iristeko mugarri nagusiak.

Agiri hori bertaratutako guztiei banatu zitzairen, eta jakinarazi egun horretan bertan prozesuaren webgunean argitaratua zegoela, herritar guztiek kontsultatu ahal izan zezaten. Zentzu horretan, egun horretan ireki zen bi asteko epea nahi zuenak agiri horren gaineko zuzenketak edo proposamenak egin zitzaizkien, posta elektronikoz, eta gero horiek berriz ere landuko ziren hilabete horretako 19rako deitutako bileran. Denbora tarte horretan zentroko kudeaketa-agiria aldatzeko lau proposamen jaso ziren.

Urriaren 19an bigarren bilera irekia egin zen, eta 35 lagun bertaratu ziren. Aurreikusitakoari jarraituta, aurreko egunetan aldatuta-proposamenak aurkeztu zituztenek beraiek azaldu zituzten aldatuta horiek. Ondoren, horien inguruko eztabaidarako tarte ireki zen, erabakitzeke zein neurritaraino eta nola sartu behar ziren kudeaketa-ereduko behin betiko agirian. Eztabaida eta gero aldatuta-proposamenei buruzko kontsentsua lortu zen, eta horiek osorik erantsi ziren agirian.

Partaidetza eta sormen kolektiboaren ondorioz lorturiko kudeaketa-agiria bileran bertan eman zen onetsizat. Han esandakoarekin bat, agiri hori berrikusi eta egokitzen ahalko da, zentroak bizi dituen egoeren arabera, eta beti Plazara! definitzen duten balioekin bat.

Bilera amaitzeko, bertan ziren guztiei gonbit egin zitzairen Talde Eragileak prozesu partizipatiboaren bigarren fasea prestatzeko egiten zituen bileretan parte hartzera, eta horretarako bileren egunak eta lekuak jakinarazi zitzaizkien. Bigarren fase horretan, Zentro Komunitarioa BETA fasean jarriko da martxan. Denbora tarte horretan, Plazara!-k funtzionamendu esperimentalak abiatuko du, proiektua bera indartu eta sendotzeko, proiektura pertsona eta kolektibo gehiago biltzeko eta, aldi berean, kudeaketa- eta antolakuntza-eredua orrazteko helburuz.

Bilera horien berri idatzizko prentsaren bitartez eman zen, sare sozialetan eta leku estrategikoetan kartelak jarrita, eta horrela bilerak ireki ziren parte hartu nahi duten herritar guztiendako.

4. EMAITZAK: KUDEAKETA EREDUA

Jarraian, Plazara! Proiektuaren oinarrizko kudeaketa-eredua azalduko dugu, zeina behin-behineko, aldi baterako eta berrikusgarria baita.

ZER IZAN NAHI DUGU?

- ✓ Zentro Komunitario bat, sozio-kulturala, autogestionatua eta autonomoa, Redín eta Cruzatarren jauregian kokatua.
- ✓ Herritarren sormen eta adierazpenerako gune komun bat, kolektiboek zein banakoei zuzendua.
- ✓ Auzoko zein hiriko elkargune bat, Alde Zaharraren eta Iruñearen gizarte-eraldaketarako.
- ✓ Gune ireki, plural, anitza, herrikoi eta belaunaldi artekoa.

GURE BALIOAK

- Partaidetza, horizontaltasuna, inklusibitatea, entzuteko gaitasuna, guztion onerako lana.
- Herritarren kudeaketaren alde, ahalik eta autogestio handiena baliatuta, konpromisotik eta gizarte ahalduntzetik abiatuta.
- Ikuspegi sozial, kulturarteko, eraldatzaile eta solidarioarekin.
- Giza Eskubideak bultzatu eta errespetatzen dituenak.
- Euskaldun eta euskaltzalea.
- Genero ikuspegia duena.
- Ekologikoa eta jasangarria.
- Laiko eta errespetuzkoa

ANTOLAMENDUA

GURE IRIZPIDEAK

- Banakoen eta kolektiboen parte-hartzea sustatu eta erraztea.
- Horizontaltasuna, eta bete beharreko gutxieneko konpromisoekin.
- Konfiantza da oinarria, eta autonomiari bide ematen zaio antolamendu-esparruan.
- Malgua eta integratzailea.

ERABAKIAK HARTZEA

- Metodoric ohikoena kontsentsua da.
- Lortzen ez bada, erabakia atzeratu egiten da, aurrerago berregin ahal izateko.
- Ezadostasuna behin eta berriz errepikatzen bada, edo bi aukeren artean aukeratu behar denean, asanbladak edo erabakiguneak erabakitzen ahalko du ezadostasuna ebatzea gehiago kualifikatua erabilita (2/3)
- Elkarreentako nahi duten kide guztiek hartzen ahalko dute parte, baina, bozketa egitekotan, boto bakar bat emanen dute elkarte edo bazkide bakoitzeko. Beharrezkoa izanez gero, bazkide kolektiboaren betekizunak ezarriko dira.
- Lan eta erabaki taldeetan parte hartzeko eskubidea izanen dute horietara joan ohi diren pertsona edota entitateek. Behin eta berriz eta justifikatu gabe bertaratzen ez direnei behin behingoz kenduko zaie eskubide hori.

Batzar garrantzitsuen eta gainerako bileren aktak jasoko dira, hartutako erabakienak behintzat. Ahal den neurrian, elebidunak izanen dira (gaztelaniaz eta euskaraz).

PLAZA [BATZARRA]

- Plazara!-ren gune nagusia informaziorako, gogoetarako eta erabakiak hartzeko.
- Plazara!-ko parte hartzaile guztiei eta Iruñeko herritarrei irekia.
- Plazara!-rekin konpromisoa duten elkarte bakoitzeko kide ordezkari bat izanen da, gutxienez.
- Parte hartzeko, Plazara!-ren funtzionamendurako agiriak eta arauak onartu behar dira. Bazter geratuko dira horien eta giza eskubideen eta abarren kontra egiten duen edozein erakunde edo pertsona.

PLAZA HANDIA [BATZAR NAGUSIA]

- Urtean bitan deituko da.
- Ezohiko batzar nagusiak ere deitu daitezke.

PLAZA TXIKIA [KOORDINAZIO-BATZORDEA]

- Hilabetean behin elkartzen da, taldeak koordinatu eta ohiko erabakiak hartzeko.
- Taldeetako koordinatzaileek osatzen dute, eta Plazara!-ko parte hartzaile guztiei irekita dago. Erabakiak bakarrik koordinatzaileek hartuko dituzte.

KALEAK [TALDEAK]

- Nork bere arloan, gogoeta egin eta jarduketak proposatu eta gauzatzeko dituzte.
- Talde egonkorak egonen dira, ezinbestekoak baitira proiektua mantentzeko (Komunikazioa, Ekonomia/Legeak, Programazioa, Mantenimendua, Bitartekaritza, etab.), eta aldian behingo beste batzuk, proiektu zehatzei buruzkoak.
- Talde bakoitzak koordinatzaile edo eledun bat izendatuko du, batzar nagusietan ordezkari lanak egiteko zein egokitzen ahal zaizkion beste lan batzuetarako, eta horrek ordezkoa ere izaten ahalko du.
- Egoki jotzen duten maiztasunez bilduko dira.

KOMUNIKAZIOA

Plazara!-ko barne eta kanpo komunikazioaren ardura izanen du, zer gai, nori, noiz eta nola jakinarazten den ezartzen duen barne protokolo bati jarraituta.

- Posta zerrendak.
 - Sarrerak (facebook, twitter, etab.)
 - Webgunea.
 - Kartelak.
 - Prentsaurrekoak, prentsa oharrak, etab.
- Plazara!-ko komunikazio garrantzitsu eta ofizial guztiak elebizi egingen dira, euskaraz eta gaztelaniaz.

Behin-behinean, Iruñeko Udaleko komunikazio zerbitzuarekin koordinazioan izanen da.

EKONOMIA/LEGEAK

Plazara!-ren kudeaketa ekonomikoaren eta lege aholkularitzaren arduraren izan du.

- Plan ekonomiko bat egingen du, Plazara! proiektuak ahalik eta autofinantzaketarik handiena lortzea helburu, eta bertan jasoko dira hala finantzaketa-beharrak eta -moduak nola horretarako baldintzak, betiere Plazara!-ren balioekin bat. Esate baterako: kuota boluntarioak, crowdfundinga, barrak, _alderantzizko sarrera_, etab.
- Proposatuko du, beharrezkoa bada eta dagokion unean, diru ordain bat liberatuaren lana ordaintzeko.

Hasierako planteamenduarekin bat, Iruñeko Udalaren ardurapean izanen dira honako gastu hauek: elektrizitatea, ura, berogailua, zaborrak, mankomunitatea, Internet, eguneroko mantentze-lanak (bonbillak, ordeko piezak, higieneko kontuak, etab.), eraikinaren mantentze-lanak (pitzadurak, istripuak), altzariak eta hasierako ekipamendua.

Gainerako gastuak —material suntsigarriak, etab.— Plazara!-k finantzatu beharko ditu.

MANTENIMENDUA

Plazara!-k erabiltzen duen eraikinaren mantentze-lanen kontrolaren arduraren izan du uneoro (aldi baterako erabilera zein behin betikoa izan), eta horren inguruan beharrezko diren jarduketak guztiak proposatzekoa ere.

- Hastapenetako une honetan, Redín eta Cruzatarren jauregia birgaitzeko obrak berrikusiko ditu.
- Erabilera-irizpideak proposatu eta arautuko ditu, ingurumenari dagokionez jasagarriak, produktuei, erabilerei, birziklapenei eta abarrei buruz.

Iruñeko Udaleko teknikariek koordinatuko da.

PROGRAMAZIOA

Plazara!-ren programazioa prestatu eta kudeatuko du, eta Plazara!-ren programazio propioa sortuko du, beste ekimen edo pertsona batzuek sustatutakoekin bat etorrira.

Honako irizpideak izanen ditu oinarri:

- Lehentasuna ematea balioa ematen duten eta ikuspegi eta diziiplina ezberdinen arteko nahasketa bultzatzen duten jardueri.
- Auzoaren eta hiriaren arteko oreka zaintzea.
- Beste Zentro Komunitarioekin koordinatzea eta elkarlanean aritzea.
- Profil berritzailea ematea proposaturiko jarduera guztiei.

Proposatutako jarduerak hautatzeko irizpideak ezarriko ditu, eta arautuko ditu ordaindutako jardueren prezioak edo diru ordainak. Adibidez:

- Arrazoizko prezioak.
- Parte bat monitorearentzat izanen da, eta bestea proiekturako geratuko da.
- Estu edo baliabiderik gabe bizi direnek sarbidea izanen dute, eta horretarako, ahal duten heinean, beren denbora eman beharko dute barne lanen bat eginez, Plazara!-ren denbora banku propioarekin bat.

Sormen-laboretegi baterako espazio bat antolatu eta deituko du, beharrezkoa denean, programazio berritzailea sortzeko helburuz.

BITARTEKARITZA

Erakundeekiko eta lurraldearekiko harremanen ardura izanen du, bai eta barne harremanak ikuskatzearena ere.

Honako irizpide hauek izanen ditu oinarri:

- Berdinen arteko harremanak ezartzea instituzioarekin, onak, arinak eta gardenak.
- Harreman naturalak eta akordioak bultzatzea auzoko edo hiriko beste erakundeekin (ekimenak, elkarteak, kolektiboak, etab.), eta batez ere zentro komunitarioekin.
- Barne harreman onak bultzatzea eta izan daitezkeen gatazketan bitartekari aritzea, horretarako jarduketa protokolo bat aurkeztuta. Elkarbizitzarako arauak proposatuko ditu, eta, hala badagokio, praktika onen dekalogoia ere.

Iruñeko Udalarekin koordinatuko da, eta haren kideek segimendu-batzordean hartuko dute parte, erakin publikoen 'Erabilera araudiaren' testuinguruan.

ANTOLAKUNTZA

Beharrezkoa izanez gero, Plaza Txikiaren edo koordinazio batzordearen funtzionamenduari ordezkatzen ahalko da, edo Ekonomia/Legeak taldean sartu, horretarako eskumenak eta beste handituz.

Barne funtzionamenduko zenbait lan kudeatu eta koordinatuko ditu.

- Jardueren egutegia eta ordutegia osatuko du.
- Talde eta pertsona berrien harrera eta integrazio lana egingen du.
- Talde egonkor zein aldi batekoak koordinatzea.
- Bilerak eta batzarrak deitzea.
- Zenbait eginkizun antolatzea: egutegiak eta ordutegiak antolatzea, espazioak banatzea, garbiketa txandak antolatzea, sarreraren kontrola egitea (giltzak, txartelak, etab.), eta beste.
- Ekitaldiak, auzolanak, eta abar antolatzea.
- Erabilgarri dauden espazioen erabilera eta sarbidea arautzea, irizpide argiak ezarrita.
- Plazara!-ko espazioetarako sarbidea ezartzea eta arautzea, kudeaketa-sistema baten bidez.

Kudeaketa-sistemak honako alderdi hauek izanen ditu kontuan:

- Zentroaren irekiera eta itxiera. Giltzen kudeaketa.
- Espazioak eskatzeko eta lagatzeko protokoloa.
- Gertakarien aurrean jokatzeko protokoloa.
- Ekipamenduen inbentarioa eta kudeaketa.
- Espazioaren aseguruia.
- Datuak babesteko legea.
- Sartzeko eta erabiltzeko irizpideak. Aurrerago ezartzen ahal diren beste batzuen artean, honako irizpide hauek izanen ditu:

- Plazara!-ren balio, irizpide eta arauak onartzen dituzten pertsona eta erakunde guztiei irekita egonen da.
- Sartzeko eta erabiltzeko lehentasuna izanen dute izaera sozial zein kulturala duten ekimenek.
- Sartzeko eta erabiltzeko baimena izanen dute edozein erakunde politiko, sindikal edo erlijiosok, jarduera sozial zein kulturalak egiteko –betiere Plazara!-rekin bateragarriak badira-, baina ezin izanen da ekitaldi liturgiko edo hautes ekitaldirik egin.

-  Plazara31
-  @Plazara31
-  654 691 427
-  info@plazara.net



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

Plazara!
Grupo motor - Talde Motorra